



## Eibarko Udal Azpifuntsa



### Identifikazio-eremua

<b>Erreferentzia-kodea</b>	ES20030AME_FM
<b>Izenburua:</b>	Eibarko Udal Azpifuntsa
<b>Data</b>	1409 – Funtsa irekia
<b>Deskripzio maila</b>	02 - Azpifuntsa
<b>Bolumena</b>	1350 ml.

### Testuinguruaren eremua.

#### Ekoizlearen izena.

Eibarko udala

#### Historia instituzionala

San Andrés de Eibar herri zaharraren fundazio ofiziala, Gaztelako Alfonso XI. erregeak 1346ko otsailaren 5ean emandako hiri-gutunetik dator. Ustekoa denez, dokumentu juridiko horretan herriko Kontzejuaren antolamendua ezarriko zen, lau kargu hautetsi hauekin osatua: Alkatea edo endorea, prokuradore sindikoa, epaileak eta eskribaua; horiek ziren kontzejuaren gobernuaz arduratzen zirenak. Hasiara batean, Kontzejuaren edo udalaren bilkurak kalean bertan izaten ziren, San Andres elizaren arkupeetan edo Ibarra de Suso etxetik gertu, Ibergain izenez ezagunagoa duguna. Ostera, XVI. mendeak aurrera egin ahala, bilera horiek ere leku itxietan egiten hasi ziren, zehazkiago, herriko ospitale



zaharraren gela edo areto batean. Kontzejuak edo udalak ez zuen izan bere bilkuretarako eta lanerako propio egindako eraikinik XVII. mendera arte; orduan egokitu zen Portaleko dorrea edo Amarrenengua izeneko eraikina. Dorreak su hartu zuen Komentzioko tropek 1794an herriari su eman ziotenean; horren ondorioz, Plaza Nueva zaharrean (gaur egun, Plaza Barria) edo Konstituziokoan udaletxe berri bat egitea erabaki zen. Ia ehun urte beranduago, 1899an, udaletxea beste leku batera eramatea erabaki zuen udalak, Untzagara alegia, eta eraikinaren planoak Ramón Cortazar arkitekto donostiarrari enkargatu zitzaizkion. 1901ean inauguratu zen. Harrez geroztik -1997tik 2003ra izan ezik, urte horietan udaletxea berritzeko obrak egin baitziren- udala beti egon da Untzaga plazan. Jatorrizko antolamendu hura kontzeju ireki edo unibertsitate legez, garatzen joan zen denborak aurrera egin ahala, eta esparru gehiago hartzen joan zen gobernu arduetan: legeak egin, epailletza bere gain hartu, betekizun administratiboak, sozialak eta ekonomikoak bereganatzen joan, toki ogasuna edo hazienda kudeatu. 1931n, Eibar, Madrilgo Gacetan argitaratutako Dekretuz "Hiri guztiz eredugarri" izendatua izan zen; izen hori, 1981eko urriaren 6an Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailaren 117/81 dekretuz berreskuratu zuen.

### Historia artxibistikoa

Herriko artxiboaren inguruko lehenengo albistea 1548ko akta batean aurkitzen da, sarraila biko kontzejuaren arka edo kutxa aipatzen duena; arka hor San Andres elizako lokal baten gordetzen zen eta kontzejuaren eskriturak eta pribilegioak zituen barruan gordeta. 1597an auzi zibil bat izan zen Juan Loyolaren -herriko sindikoa- eta Juan Sumendiaga eta Jacobo Carranzaren artean -aurrena, alkate izandakoa eta bigarrena, herriko fiela izandakoa- eta artxibotik atera ziren bost eskritura itzultzeko agindua eman zitzaien. 1650eko urtarrilaren 6an, Miguel Zumaranek zilar-kobreko 100 erreal jaso zituen Domingo Ernizqueta herriko sindikoaren eskutik kontzejuaren paperak gordetzeko hiru giltza, hiru sarraila, hiru bisagra, lau zoko-altzari eta 150 iltzeko kutxa egin dezan. Handik mende batera, sakristiaren artxiboan diru batzuk jartzeko eman zen aginduaren bidez jakin dezakegunez, artxiboa zaintzeko ardura alkateari, erregidore nagusiari eta eskribauari zegokien, eta bakoitzak zuen giltza bana. Artxiboaren antolamenduari dagokionez, 1782tik 1845era horren inguruan hartutako erabakiak daude jasota. 1865ean, idazkariak, otsailaren 3ko dekretuz dokumentuei buruz zituen ahalmenen arabera, udal idazkaritzan zeuden dokumentu eta paperen inbentarioa egin zuen. Handik hiru urtera, 1868an, udalak -aurretik antolatuta eta inbentarioa eginda- Errege Agindu batek zioena betez, herriko protokoloak, dokumentuak eta eskribautzako paper guztiak entregatu zituzkion Eibarko notaritzaren titularrari. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1876ko martxoaren 20an emandako 20. zenbakiko zirkularrak zioena betez, Idazkaritzan eta Udal Artxiboan zeuden "dokumentuen, paperen eta akta-liburuen inbentarioa" egin zen urte bereko martxoaren 28an. 1902ko udan, Serapio Múgicak, Gipuzkoako Udal Artxiboen inspektoreak edo ikuskariak, José Antonio Lesarri udal idazkariaren deia jaso zuen, Udal Artxiboaren antolamenduaz aginduak edo eginbeharrekoak eman ziezazkion. Orduan ezarri zen Funtzak Sailkatzeko Koadroa, inspektoreak sortutakoa; aldaketa batzuk egin zitzaizkion Hazienda eta Obra atalean, Erremateetakoan, lehiaketa eta enkanteetan eta Bestelako funtsetan. 1916ko urriaren 1ean, Bernardo Las Heras Borobia jabetu zen artxibozain-liburuzain plazaz; 1937ko apirilean eten egin zuten bere lana eta 1937ko abenduaren 1ean bueltatu zen. 1950ean plaza hura amortizatu egin zen eta udal idazkariak hartu zuen Artxiboaren ardura. 1990ean sortu zen berriro artxibozain plaza; Yolanda Ruiz Urbón andreak okupatzen duena. Orduz geroztik bulegoetako artxiboen transferentziak antolatu dira eta Madrileko Artxibozain Taldearen Funtzen Sailkapenerako Koadroa hartu da eredutzat.

### Sartzeko modua

Erakundeak berak sortzen duen dokumentazioa batuta.





## **Edukiaren irismena eta egitura**

### **Irismena eta edukia**

Dokumentazioa 1409tik gorde arren, dokumentazio-multzo handiena XIX. eta XX. mendeetako da; oso aproposa XX. mendearen lehenengo zatiaren aldaketa politikoak, sozialak eta industrialak aztertzeko.

### **Balorazioa, aukeraketa eta ezabaketa.**

Expurgoa edo ezabaketa serie batzuetan.

### **Sarrera gehiago.**

Bai

### **Antolamendua.**

1980a baino lehenagoko dokumentazioari begira Serapio Múgicaren Sailkapena erabili zen aldaketa batzuekin; beraz, antolamendua ez zen erabatekoa izan. Berezitasunak sekzio edo atal hauetan aurki genitzake: C atala Hazienda eta Obra sailetakoa da. D erremate, lehiaketa eta enkanteena da, F bestelakoena. Urte horietatik aurrerako dokumentaziorako eta sailek 1980az gerotik egin dituzten transferentzia edo esku-aldaketetarako, José Ramón Cruz Mundetek bere Antolamendurako Eskuliburuan egindako Funtsen Sailkapena erabili izan da; sailkapen hori Madrilgo Autonomia Erkidegoaren Udal Artxibozainek egindakoaren oinordekoa dugu; eta udal erakundeari egokitzearen, aldaketa batzuk egin zaizkio.

## **Erabilera eta sarbidea: Baldintzak.**

### **Eskuratzeko baldintzak**

Izaera publikoko artxibo-funtsa.

Sarrera librea, ondoko lege hauek aurreikusitako muga edo murrizketekin: uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, eta udalak berak onetsitako Segurtasun Dokumentua.

### **Erreproduktzioarako baldintzak.**

Erreproduktzio librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin.

### **Hizkuntza / dokumentuen idazkera (k).**

Gaztelera/Euskara.

### **Deskribapenerako lanabesak.**

- Kontzejuaren liburua edo herriko paperen memoria. 1635-1659
- Udal Idazkaritzako dokumentuen inbentarioa: 1865-1876.
- Udal Artxiboko dokumentuen indizea: 1975.





- Udal Artxiboko dokumentuen indizeari egindako eranskina: 1980.
- Katalogoa.
- Katalogoa, Serapio Múgikaren sailkapeneko Serie Historikoak ISADGi egokituta (egiten ari da).

## Dokumentazio elkartua

### Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udal artxiboa

### Argitalpenen oharra.

- . - Monografía Histórica. Gregorio Múgica. Eibar 1984
- . - Síntesis de la monografía histórica. Pedro Celaya. San Sebastián, 1981
- . - El solar de los Unzueta y su participación en el bando oñacino. Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. XVII, 1961 Juan San Martín.
- . - En torno a los testimonios del Arte Románico en Eibar. Bol de la R. S. Vascongada de Amigos del País, XXV, 1969.
- . - La estructura urbana de la primitiva villa de Eibar. Vol.II. Homenaje a J. Ignacio Tellechea Idigoras. Bilbao, 1983. Juan San Martín.
- . - Eibarko Hiri Toponimia. Eibarko Udala Ego Ibarra Batzordea. Eibar, 1995
- . - El Grabado en Eibar. Nuestros Grabadores. Ramiro Larrañaga. Nera Alústiza. Eibar, 1996.
- . - La industria armera nacional 1830-1940. Fábricas, privilegios, patentes y marcas. J. Luis Calvo. Eibar, 1997.
- . - Eibar. 1346-1996. Ekarpén historikoak. Aportaciones históricas. Elena Barrena. José Urrutikoetxea. Gotzon Iparragirre. Felix Luengo. Paloma Miranda. Col. Lankidetzan bilduma, Eusko Ikaskuntza, 1999
- . - Un mercader en el reino de Felipe II: El eibarrés Martín López de Isasi. José Antonio Azpiazu. Eibar, 1999
- . - La Insurrección de Octubre de 1934 y la República en Eibar. Jesús Gutierrez Arosa. Eibar, 2001.
- . - Eibarko Efemerideak. Nerea Areta Azpiri. Eibarko Udal 2003
- . - Eibar, Orígenes y Evolución (siglos XIV-XVI). Javier Elorza Maiztegi. Eibar, 2000

## Deskribapen Kontrola

### Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

### Arauk

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

## Deskribapen-data

2008-04-07

